

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, APIRILAREN 30EKO  
37/2014 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUAREN  
PROIEKTUARI BURUZKOA. FORU DEKRETU HORREN BIDEZ  
ARAUTU ZEN NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO  
ADMINISTRAZIOAREN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASLE  
KIDEGOEI DAGOZKIEN LANPOSTUEN HORNIDURA.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, foru lege baten aurreproiektua edo erregelamendu baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarrek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin zein arazo konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21.1c) artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak. Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritziz gero, igor ditzakete planteatutako arau-proposamenaren gainean dituzten ekarpenak. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun balioudunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

- a) **Ekimenarekin zein arazo konpondu nahi diren**

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoei dagozkien lanpostuak nola bete arautzen du, baita lanpostu horiek betetzeko erregelamenduzko araubideak jaso ere, zentzu zabalean hartuta; hau da, ez da behin betiko destinoa lortzera mugatzen, baizik eta ikasturte baterako edo zerbitzu eginkizunetan emandako behin-behineko destinoak diren kasuetara ere iristen da.

Administrazio publikoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak, zeinak agindu baititu Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premia neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, Nafarroan islatu dira uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premia neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Foru lege honek indarra hartzeak, irakasleei ere aplikagarri zaien heinean, partzialki bada ere, koherentzia falta eragiten du lege eta erregelamenduen artean, eta, jakina, beharrezkoa da hori zuzentzea, erregelamendu izaera duen araua aldatuz.

Gainera, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak derrigorrean ekarri du otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretua aldatu beharra. Errege dekretu horren bidez garatu ziren Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (LOE) aipatzen diren bi kontu: batetik, onetsi zen irakaskuntza kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko erregelamendua, eta, bestetik, arautu zen lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrerako araubide iragankorra, zeina nahitaez aplikatu behar baita Nafarroan, estatuko irakasleen kidegoetan sartzeari dagokionez. Aldaketa hori apirilaren 12ko 270/2022 Errege Dekretuaren bidez egin da.

Azkenik, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren bidez, LOE aldatu egin da irakasleen kidegoen antolamenduari dagokionez (kendu da Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoa eta sortu da Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa), eta horrek ere eragiten dio 37/2014 Foru Dekretuari; izan ere, 37/2014 Foru Dekretua egokitu behar da lege mailako arau horietara, bai eta haiek garatu eta osatzen dituen oinarrizko erregelamenduzko araudira ere. Batez ere, egokitu behar da urriaren 4ko 800/2022 Errege Dekretura (800/2022 Errege Dekretua, urriaren 4koa, arautzen duena desagertu beharreko Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoan irakasleak Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzea eta aldatzen dituen unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako irakasleei buruzko zenbait errege dekretu).

Bestalde, 2022ko maiatzaren 6an, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 11/2022 Foru Legea, maiatzaren 4koa, neurriak ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira.

Izenetik beretik ondorioztatzen denez, bi arauk gai amankomun bat dute: unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioak hautatu eta lanpostu horiek betetzea. Beraz, erregelamenduzko araua ez da egokitzen foru legeak sartutako berrikuntzeara.

Bestalde, beharrezkoa da apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuan erregulaziorako eta garapenerako jasotako elementu batzuk berrikustea eta, hala badagokie, aldatzea, aintzat hartuta zer esperientzia dagoen dekretua indarrean jarri zenetik.

**b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.**

Beharrezkoa eta egokia da proposatutako araua onestea; izan ere, arauen koherentzia lortu beharra dugu. Horretarako, erregelamenduzko araua egokitu behar da aipatutako lege horietan sartutako berrikuntzetara.

**c) Arauaren helburuak.**

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzearen helburua da foru dekretu berria bat etortzea gorago aipatutako lege formalaren maila duen araudiarekin, izan Nafarroakoa zein estatukoa. Horrela, lortzen da esparru juridiko egokia, zeinak bermatuko baitu foru legeak behar bezala aplikatzen direla, eta eragindako irakasleek segurtasun juridikoa dutela beren eskubideak baliatzean eta betebeharrak betetzean.

Esan bezala, aztertuko da zein aldaketa jotzen diren beharrezkotzat, aintzat hartuta foru dekretua indarrean sartu zenetik izan duen ibilbidea.

**d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).**

Kontuan hartuta aldatu nahi den erregelamenduzko arauak gaia dagoeneko arautzen duela, bertan jasotzen diren eskubide eta betebeharrak aipatutako foru legeetara egokitzeko, aukera bakarra da irtenbide arauemailea ematea, 37/2014 Foru Dekretua aldatuta.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean.

LANGILEEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Javier Lacarra Albizu